

Urtarrilaren 13an Jaunaren Bataioa

Agurra

Aitaren Seme maitea den Jesus Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako Oharpena

Jaunaren Bataioaren jaia ospatzen dugu gaur. Jesus da Jainkoaren Zerbitzaria, Espirituak Gantzututako Mesias, Aitak Semetzat aitortu zuena, herri guztien salbamenaren Berri Ona iragartzera bidalia.

Ura bedeinkatzeko eta ur bedeinkatuz zirtatzeko ohikunea

Senide maiteok: otoitz egin diezaiogun Jainko gure Jaunari, Kristoren Bataioaren jaiegunean geure Bataioaren oroigarri gure gainera isuriko den ur hau bedeinka dezan eta hartu dugun Espirituari zintzo jarraitzen lagun diezagun. *(Isilune labur bat utzi)*.

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
ura biziaren iturri eginik,
gizon-emakumeen arimak urez garbitzea nahi izan duzu,
eta guk ur honetan betiko biziaren dohaina hartzea;
bedeinka + ezazu, Jauna, ur hau,
beronek indar gaitzan, Zuri eskaintzen dizugun egun honetan.
Ur honen bidez berri ezazu gudan zure graziaren iturri bizia,
zaindu gaitzazu gorputz-arimetako gaitz guztietatik,
Zugana bihotz garbiz hurbil gaitezen,
eta Zugandik iritsi dezagun behar dugun salbamena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

(Herria zirtatzen du, Bataio-kantu egoki bat kantatzen den bitartean)

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala. R/. Amen.

Aintza

Gora dezagun Jainkoa bihotzez, Aintza kantatuz.

Otoitza

**Jainko ahalguztidun betierekoa,
Kristo Jordango uretan bataiatua izan zenean
eta Espiritu Santua haren gainera jaitsi zenean,
goraki aitortu zenuen Bera dela zure Seme maitea;
emaiezu, uretik eta Espiritu Santuagandik jaio diren
zure seme-alabatzakoei,
zure nahia betetzen irautea.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jaunaren promesak betetzen ari dira: Jaunaren Bidaliak bere bataiokoan hasten duen misioaren hasieran agertuko zaigu gaur hori. Kristo da aukeratua, Kristo zerbitzari apala, gizon-emakume guztiei Jainkoaren seme-alabatzak eta askatasuna ematen dizkiguna.

Lehenengo irakurgaia (*Is 42, 1-4. 6-7*)

Isaias profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Hona, Nik eusten diodan nire zerbitzaria, atsegin zaidan nire aukeratua. Honengan ipini dut nire espiritua: berak ekarriko die zuzenbidea atzerriei. Ez da deiadarka ariko, ez du

oihuka hitz egingo, ez du kaleetan entzun eraziko bere mintzoa. Kainabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi pitzua dagoen metxa ez du itzaliko. Zuzenbidea ekarriko du; ez du etsiko, ez da hautsiko, zuzenbidea lurrean ezarri arte, uharteek itxaron duten Haren legea jarri arte. Nik, Jaunak, zuzentasunez dei egin dizut, eskutik hartu zaitut; herri baten elkargo izateko, atzerrien argi izateko aukeratu zaitut, itsuen begiak zabal ditzazun, giltzapetuak espetxetik atera, eta kartzelako ilunbetan daudenak aska ditzazun».

Erantzun-salmoa (Sal 28, 1-2. 3ac-4. 3b eta 9c-10)

Jau - na da gu - re Sal - ba - tzai - le - a. Gu -
 re in - da - rra e - ta ba - ke - a.

Eman, Jainko seme-alabok, Jaunari,
 eman ospe eta indar Jaunari.

Eman ospe Jaunari bere izenaren ederrez,
 jauretsi Jauna apainduria deunez. R/.

Horra Jaunaren mintzoa ur gainean,
 Jauna ur ugarien gainean.

Jaunaren mintzoa indartsu,
 Jaunaren mintzoa ospetsu. R/.

Jainko itzalgarriaren hostotza durundan,
 Haren jauretxean denek diote: Gora!

Eseri da Jauna uholde gainean,
 Jauna errege eseriko betieran. R/.

Bigarren irakurgaia (*Eg 10, 34-38*)

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Pedrok honela esan zuen: «Garbi ikusten ari naiz, Jaungoikoak ez duela bereizkeriarik egiten; baizik eta onartzen duela, Haren beldur dena eta zuzen dabilena, edozein herritakoa dela ere. Berak bidali zien Israelgo seme-alabei bere hitza, eta guztien Jauna den Jesu Kristok ekarriko zuen bakearen berri ona eman zien.

Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek erakutsitako bataio ondoren: Nazaretoko Jesusena, alegia, Jaungoikoak Espiritu Santuaren indarrez gantzutua; eta on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zena: Jaungoikoa Harekin bait zegoen».

Aleluia (Ik. *Mt 9, 6*)

Zerua zabaldu zen eta Aitaren ahotsa entzun zen:

«Hau da nire Semea, nire maitea.

Entzun iezaiozue». R/.

Ebanjelioa (*Mk 1, 6b-11*)**Homiliarako argibideak**

Espiritua jaitsi zen Haren gainera

Bataiatu egiten ditu Elizak haurrak. Euren seme-alabentzat bataioa eskatzen duten gurasoez fidatzen da, hasiera batean, gurasoei euren fedea frogatzeko eskatu gabe. Nahikoa da gurasoak fededun aitortzea eta euren seme-alabak ere hala izan daitezen nahi dutela adieraztea. Elizarentzat nahikoak dira hitzemate hori eta euren seme-alabak kristautasunean hezteko konpromisoa. **Hasiera baino** ez da hori, ordea. Pixkanaka eta bizitzan zehar, bataioaren beraren esanahia onartu behar du bataioa hartu duen bakoitzak. Horregatik, helduek ere hartzen dute bataioa. Kristo Jesusengan bataioa hartu izanaren esanahia onartzen saiatu behar du bizitza osoan.

Sakramentua bat da bataioa, keinu profetiko bat, Jainkoaren graziaren errealitatea adierazten du. Zoritxarrez, haurraren burura ur pixka bat botatzea baino ez da bataioa, gaur egun; ez da garbi ikusten zer adierazi nahi dugun. Jordan ibaiko Jesusen bataioak, edo helduenak, jatorriko Elizan, igerileku moduko batean, argi eta garbi erakusten zuen horren edukia. Ibaian murgilduta, Jesusek bere egin zuen juduen talde batzuen keinua eta, bereziki, Joan Bataiatzailearena. **Bihotz-berritze** ezaugarri bat zen, eta, hortaz, iraganarekin haustearen keinua. Ibaiko uretan, bizimodu bat geratzen zen urpean. Beste pertsona bat irteten zen uretatik, Jainkoaren Espirituak eraldatutako pertsona bat (Lk 3,15-22). Eraldatze hori bizi izan zuten pertsonak osatzen zuten salbatuen komunitatea.

Ordura arte, bere amarekin bizi zen Jesus, Nazareten, eta artisaua zen. Deigarria bazen ere, ez zegoen ezkondata, bere bizitza goitik behera aldatuko zuen zerbait gertatuko zela susmatzen baitzuen. Joan Bataiatzailea **Jainkoaren Erregetzaren** etorreraz hitz egiten entzun zuenean, argi eta garbi ikusi zuen Erregetzaren zerbitzura jarri behar zuela bere bizia, eta ezin ziela bere denbora familia bati eta lanbide bati eskaini.

Espiritu Santua Jesusengana iristearekin batera hasiko da behin betiko garaia etorrera, eta Jesus bihurtuko da Jainkoaren Erregetzaren etorrerak markatutako aro berri horretako profeta Jesus izango da profetek aspalditik iragarritako Berri On horren, Ebanjelioaren, mezularia (Is 40,1-5.9-11). Hala, Jainkoa historian sartuko dela agintzen da. Bere erregetza betetzera dator Jauna, Israelen eta herri guztietan agintzera. Justizia eta zuzenbidea ezarriko ditu. **Espirituaz gantzuta**, indar berezia izango du Jesusek bere bizia Erreinuaren zerbitzura jartzeko.

Bataio kristaua ere keinu profetikoa da, baina zentzu kristologikoa du orain. Uretan murgilduta, Kristoren heriotzan murgiltzen da fededuna. Bekatua eta gaizkia hiltzen dira Harekin. Hiru ukaziorekin adierazten dugu bataioan, tradizionalki munduari, deabruari eta haragiari uko eginda, Jainkoaren Erregetzaren aurkako dira eta. Baina bataioak **Jesusen piztuera** biziartzten digu batez ere. Uretatik ateratzean, beste izaki bat gara, Espiritu Santuaren olioarekin igurtzitako gizaki berri bat, eta Frantzisko Aita santuak esan ohi duen bezala, "jarraitzaile misiolari" egiten gaitu, profeta-, apaiz- eta errege-herri bateko kide. Soineko zuri bat janzten digute, bizitza berri hori, Jesusen bizitza, Jainkoaren bizitza, adierazteko. Fedea aitortzen dugu, eta, horren bitartez, Jainkoa hartzen dugu gure bizitzan.

Bataioaren bitartez, **Jainkoaren onginahia eta maitasuna** hartzen ditugu, Kristo Jesusen gertaeran agertutakoak (Tt 2,11-14;3,4-7). Ez dugu ezer egin horiek merezi izateko. Haren errukiaren oparia da. Bizia Jainkoaren dohaina den bezala, Jainkoaren dohain handiena da bataioaren bigarren jaioberritzea, gauza guztiak berritzen dituen Haren Espirituaren dohaina. Berritu ditzagun, pozez, gure bataio-promesak, Jainkoaren Erregetzaren zein Erregetza horren aurkakoa den guztiaren kontrako borrokaren aldeko konpromisoak.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, dei egin diezaiogun bataioa hartuz gizakia berritu eta gure bataioa santutu nahi izan zuen Salbatzaileari:

Erantzuna: **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua.**



En - tzun, Zuk Kris - to, he - rri ho - nen oi - hu - a.

- Kristok, Jainkoaren zerbitzariak, Aitaren maiteak maitasunez begira diezaien bataioa eta sendotza hartzeko prestatzen direnei, edo heuren haurrak prestatzen dituztenei. Egigun otoitz.
- Kristok, herri guztiak zuzentzeko Jainkoak Aukeratuak, Jainkoa bihotz zintzoz bilatzen dutenak argi ditzan, Aitaren ahotsa entzunarazi diezaien eta bataioko uretara zuzen ditzan. Egigun otoitz.
- Kristok, Espirituak Gantzutuak, Aitaren asmoarekin leial izan zenak, eman diezaiela bere ametsak zailtasunez beteak ikusten dituzten etorkinei eta beren herritik urruti bizi direnei, ez etsitzeko adorea. Egigun otoitz.
- Kristok, Seme maiteak, Jordanen bataioa hartu nahi izan zuenak, lagun diezagula bataioaren handitasuna eskertzen, Jainkoak gizakioi digun maitasunaren dohain denez. Egigun otoitz.

Jainko errukitsua zure ahotsa entzunarazten duzu bataioko urtean eta sendotzako gantzutzean, entzun gure otoitzak eta emaezu bataiatu guztiei bataioko hitzak leial betez fedearen testigu ausart izatea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Bataioan bat egin genuen Kristorekin. Orain Berekin batera seme eta alaba sentituz, zuzen diezaiogun errukiaren Aitari esker otoitza.

Prefazioa: Jaunaren Bataiokoa. (*Meza-liburuan, 114. or.*)

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Dohain santu hauez aserik, Jauna,
zure errukiari dei egiten diogu:
egin gaitzazu zure Semearen hitzaren entzule zintzo,
izenez eta izatez zure seme-alaba izan gaitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetzte, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Zaindu ezazu, Jauna,
eske datorkizun zeure herria;
garbi ezazu eta zuzendu,
hemengo gorabeheretan Zeuk lagundurik,
betiko ondasunak bila ditzan.**

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak.** R/. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.

